

Itsuentzako lehen semaforoa jartzeko lanak hasita

Azken eguneratzea: Astelehena, 04 Martxoa 2019 22:47

Argitaratua: Astelehena, 04 Martxoa 2019 22:15



Ezkiaga auzoko Joan XXIII kalean hasi dira ezaugarri bereziak dituen semaforo berria kokatzeko lanak

Udalak ONCE erakundearekin elkarlanean herritarren beharrei erantzuten dien egitasmoa gauzatu du udalerri irisgarriagoa eraikitzen jarraitzeko asmoz

Udalak Beasain atsegín, eroso eta irisgarriago bat eraikitzearen aldeko beste ekimen bati ekin dio. Pertsonen eta herritarren ongizatea helburu hartuta, Ezkiaga auzoko Joan XXIII kalean itsuei egokitutako semaforo berria jartzeko lanak hasi ditu. ONCE elkartearekin elkarlanean eremu honetarako zegoen behar bati erantzuten dio Udalak.

Zorua zulatzeke lehenengo lanak gaur hasi dira eta aste honetan espero da semaforoa behin betiko kokatua egotea.

Itsuentzako lehen semaforoa jartzeko lanak hasita

Azken eguneratzea: Astelehena, 04 Martxoa 2019 22:47

Argitaratua: Astelehena, 04 Martxoa 2019 22:15

Honela, itsuak eta hauez gain ikusmen urritasuna duten pertsonentzako eremu honetan irisgarritasuna hobetzea izan du helburu ekimen honek. Ezaugarri berezi hauekako lehen semaforoa izango da Beasainen jarriko dena baina Udalak beharren arabera azpiegitura hau udalerriko beste zenbait lekutan jartzeko aukera aurre ikusten du.